2023ko
AZAROA

# INDARKERIA MATXISTAK NERABEZAROAN
## VII. JARDUNALDIA

Intxaurrondo Kultur Etxea (Felix Gabilondo plaza 1)

# Sexu-hezketa



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Gazteria

donostia kultura

**Izen-ematea:**
https://labur.eus/indarkeriamatxistajardunaldia2023
943 481909 – urriaren 2-20 bitartean

**Informazioa:**
donostia.eus/gazteria
donostia.eus/berdintasuna

# SEXKIDETZA: SEXU-HEZIKETA HEZKIDETZAILEA NERABEZAROAN

Sexu-heziketa ezinbestekoa da indarkeria matxistei aurre egiteko. Sistema patriarkalak eskaintzen digun sexualitate eredua androzentrista da, zisheteroarauan oinarritua, transfoboa, homofoboa, kapazitista eta falozentrista. Horregatik ezinbestekoa da sexu-heziketa hezkidetzailea garatzea, sexualitate eredu patriarkala hautsiko duena eta sexualitatearen kontzeptua zabalduko duena, indarkeria matxisten konplexutasuna aitortu eta jorratzeko aukera emanez. Bide hori jorratzeko asmoz, aurtengo jardunaldiak ekimen ezberdinak izango ditu: jardunaldia, tailerrak eta kultur emanaldiak.

## JARDUNALDIA

>> 2023/11/09
>> 9:00-14:30

Jardunaldi hauetan, sexu-heziketari buruz hausnartuko dugu. Sexu-heziketaren ibilbidea kokatuko da, pornografiak gazteen sexu-heziketan duen lekuari buruz hausnartuko da, sexu-heziketa hezkidetzailearen beharra azaleratuko da eta praktika eta esperientzia ezberdinak partekatuko dira.

**> 8:45-9:00**
**ONGIETORRIA ETA MATERIALEN BANAKETA**

**> 9:00-9:15**
**JARDUNALDIAREN IREKIERA ETA AURKEZPENA**

**> 9:15-9:35**
**SEXU ESKUBIDEAK ETA SEXU HEZIKETA: NONDIK GATOZ, NON GAUDE ETA NORA GOAZ.**
Eider Goiburu Moreno.

**> 9:35-10:30**
**PORNOGRAFIA GAUR EGUNGO SEXU HEZIKETA OTE?**
Josebe Iturrioz Lopez.

**> 10:30-11:30**
**SEXU HEZIKETA HEZKIDETZAILEAREN BEHARRA INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIORAKO.**
Ane Ortiz Ballesteros

**> 11:30-12:00**
**ATSEDENA**

**> 12:00-14:00**
**MAHAI INGURUA**
1. Arte hezkidetzailea.
Artearen bitartez lan egitearen eragin-kortasuna - Sorginlore
2. Pornografia mutilekin lantzen - Eihera
3. Berdinen arteko programak - Lahia 3.0
4- Sexualitate Txokoak - Azpeitiko Udala

**> 14:00- 14:30**
**ONDORIOAK ETA ITXIERA**

## SEXKIDETZAZ BLAI! TAILERRAK

>> 2023/11/16
>> 10:00-13:00

Tailer hauen helburua, jardunaldietan egindako hausnarketatik trebakuntzara salto egitea da.

### 1. ARTEAREN BITARTEZ HEZKIDETZA LANTZEN – SORGINLORE

Tailer honetan, genero rolak, maitasun erromantikoa, indarkeria matxista, harreman osasuntsuak eta intersekzionalitatea landuko ditugu. Helburu nagusia, hezkidetza sustatzeko gaitasunak indartzea da pedagogia feministen bitartez; bizipenetatik abiatuta.

### 2. GIZONEKIN SEXU HEZIKETA LANTZEKO ESTRATEGIA FEMINISTAK - EIHERA

Erotika eta praktika afektiboen korapiloari erreparatzeaz gain, gorputzen sexuatze prozesuetan eta maskulinitatearen eraikuntzan zutabe diren faktoreei erreparatuko diegu, indarkeria matxista eta LGTBI+fobikorik gabeko gazte espazioak sortzeko helburuarekin.

### 3. BERDINEN ARTEKO PROGRAMAN TREBATZEN - LAHIA 3.0

Tailer honetan, sexualitatearekiko ditugun jarrerak landuko ditugu, gazteekin landuko diren edukiak prestatuko ditugu eta saioak dinamizatzen ikasiko dugu. Helburu nagusia hezitzaileek berdinen arteko programak egin ahal izateko baliabideak eskaintzea da.

**Parte-hartzaile bakoitzak tailer bakarra aukeratu ahal izango du.**

## KULTUR EMANALDIAK: KULTURA SEXKIDETZAILEA

Kultur adierazpen ezberdinek batzuetan barre egin arazten digute, besteetan negar, haserretzen gaituzte, baita eszitatu ere. Kultur adierazpenek emozioak mugitzen dituzte. Horregatik, ezinbestekoa da kultura sexkidetzailea sexualitate eredu patriarkala emozioetatik aztintzeko. Horretarako, bi emanaldi eskainiko ditugu: "Sexberdinak" antzezlana eta "Belarri bero, bai esan?" websaila.

### "BELARRI BERO, BAI ESAN?" WEBSAILA + SOLASALDIA

>> 2023/11/15
>> 19:00

### "SEXBERDINAK" ANTZEZLANA (AITZIBER GARMENDIA ETA TELMO IRURETA)

>> 2023/11/18
>> 19:00

## AZAROA

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

**Azaroak 9** Jardunaldia

**Azaroak 15** "Belarri bero, bai esan?" websaila + solasaldia

**Azaroak 16** Sexkidetzaz Blai! Tailerrak

**Azaroak 18** "Sexberdinak" antzezlana



Diseinua: **limoiura.com**